LAZKAOKO
UDALA

2021EKO URTARRILAREN 11KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko urtarrilaren hamaikan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2020ko abenduaren 14an egindako bilkuraren akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- ALKATETZAZ ONARTUTAKO FAKTUREN BERRI EMATEA.-

Ondoren, eguberriak direla eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurarik egin ez denez, alkatetzaz onartu diren fakturen berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

III.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2020ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 98 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (27.805,61 €)takoa onartzea erabaki da.

IV.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO LAGUNTZAK.-

Jarduera Ekonomikoko Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Erosketa bonoen kanpainako ordainketak.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2020ko udazkenean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bosgarren ordainketa aldia egitea proposatzen da:

Merkataria	Zenbatekoa
Manuel Hernandez (Golok)	70 €
Alberto Sukia Garmendia (Harategia)	10 €
Alberto Sukia Garmendia (Harategia)	1.200 €
Amaia Carro Viaña y Otra CB (Ogiberri)	85 €

LAZKAOKO
UDALA

Pedro Pereiro Zabala (Farmazia)	65 €
Gorka Urteaga Etxaniz (Irizar Anaiak)	160 €
Ana Cristina Olano (Edergintza)	665 €
Marisa Artano Zabala (Arraindegia)	2.415 €
Guztira	4.670 €

Beste alde batetik, 2020ko azaroaren 2ko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran, bonu hauen lehen ordainketa aldiaren onarpenenean Raquel Garcia Mendozari (Pranaqi masaia eta osteopatia) 850 € ordaintzea onartu zen eta 680 €ko akatsa dagoela antzeman da, ordaindu beharrekoa 170 € izanik.

V.- KULTURA ETA HEZKUNTZA ARLOKO LAGUNTZAK .-

Kultura eta hezkuntzako zinegotziak aurkeztutako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza hauek onartu ditu:

- Goierriko Hitza eta Goierri Telebista komunikabideei.-

2020ko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea, bakoitzari 5.742 €.

- San Benito Ikastolari.-

San Benito Ikastolarekin izenpetuta dagoen hitzarmenaren arabera, 2020ko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea, jardueretarako 11.500 € eta mantentze gastuetarako 17.000 €.

VI.- BENEDITARREN FUNDAZIOARI URTEKO EKARPENA .-

Udala parte deneko Lazkaoko Beneditarren Fundazioari 2021 urteari dagokion 22.000 €ko ekarpena egitearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egin du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA